



**ERABAKIA, DIPUTATU NAGUSIAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA.
GAIA: FORU KARGU PUBLIKO BATEN SENIDE BAT KONTRATATZEKO
ESPARRUAN, GOBERNU ONERAKO KODE ETIKOAN JASOTAKO BALIO,
PRINTZIPIO ETA JOKABIDEEN BALIZKO EZ-BETETZEA**

I. KONTSULTA

1. 2023ko martxoaren 13an, diputatu nagusiak bidalitako mezu elektronikoko bat jaso zen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordearen postontzian. Mezu horretan adierazten zuen, Aldundiko foru kargu publiko baten senide batan kontratatzeari buruz emandako informazioak ikusita, Arabako Foru Aldundiko arduradun nagusia den aldetik eta zerbitzari publikoen jarduna erabat gardena izan dadin, kontsulta egiten zuela foru kargu publikoek Gobernu Onerako Kode Etikoa jasotako balioak, printzipioak edo jokabideak urratu ote dituzten jakiteko.
2. Batzordeari kontsultarako aurkeztu zaion gaia aztertu baino lehen, testuinguruan kokatu behar da gaia, eta zehaztu behar da, gaur egun, kontratazio hori, egoitza judizialean aurkaratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi duela epaian, eta epai horren aurka kasazio errekurtsioa aurkeztu dela.

Hain zuzen ere, 2018ko uztailaren 2an,k ekonomialarien lan poltsa propiorik ez zuenez, ekonomialarien kontratazio zerrenda eskatu zion Arabako Foru Aldundiari, kategoria horretako lanpostu bat bost hilabetez bitarteko gisa betetzeko. Egun horretan bertan, Aldundiak "libre" egoeran zeuden lan poltsa horretako hogeit hamar pertsonen zerrenda bidali zion, puntuazio ordenaren arabera antolatuta. Hau da, ez zuen lan poltsako pertsona guztien zerrenda bidali, baizik eta "libre" egoeran zeuden zerrenda bakarrik, eta ez zituen bidali lanean edo aldi baterako bajaran zeuden pertsonen izenak.

"Libre" egoeran zeuden pertsonen zerrenda ikusita,k zerrendan agertzen zen pertsonetako bat bitarteko funtzionario izendatu zuen,aren senide dena.

Ondoren, Aldundiko ekonomialarien lan poltsako kide guztien zerrendan agertzen zen pertsona batek – pertsona horren izena ez zen agertzen 2018ko uztailarenri igorritako zerrendan, une horretan Aldundian lanean ari zelako – eskubide hobeak zuela argudiatu zuen epaitegietan, Aldundiko ekonomialarien lan poltsan 8. zegoelako,ko ekonomialari lanpostuaren kontraturako deia onartu zuen pertsonaren aurretik, hori 11. baitzegoen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiakean emandako epaian adierazi du errekurtsogilea Aldundiakri bidalitako zerrendan ez agertzea ezin



dela oztopo izan hura izendatzeko; izan ere, aipatutako datan Aldundiarentzat lanean ari zenez, "lanean" egoeran zegoen, eta egoera hori bakarrik Aldundiaren eremuan kontratatzearen edo hobetzearen ondorioetarako baino ezin da ulertu, eta eznean.

3. Diputatu nagusiaren mezu elektronikoa jaso ondoren, horren berri eman zitzaien eraginpean egon zitezkeen hainbat kargu publikori, Etika Publikoaren Batzarde honetara bidal zituzten jasotako kontsultan egindako gertakari eta gogoetei buruz egokituz jotzen zituzten adierazpen eta alegazioak.
4. 2023ko martxoaren 22an,aren idazki bat sartu zen Batzardean. Idazki horretan, gogorarazten zuen kargu publiko bat betetzeak ezin duela inola ere eragotzi bere senideak enplegu publikora sartzea, eta adierazi zuen bere karguaren arabera dagokion eskumen eremutik kanpo dagoela, berak zuzentzen duenez den beste bati atxikita dagoela, eta ez delaren gobernu organoko kide ere izan, aldundiaren ordezkari gisa.

Argitzen du, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 20. artikulua ikusita, ezin dela interes gatazkaz edo faboritismoz hitz egin; izan ere, lehen azaldu duen bezala, bere karguak ezin du eragin ez organikoki ez materialkiren edozein motatako erabakiak hartzerakoan.

Eta gaineratu du bere jardunak ez duela inolako zalantzarik sortzen eta ezin duela inolako zalantzarik sortu haren zuzentasunari, inpartzialtasunari, zintzotasunari, objektibotasunari, desinteres subjektiboari, errespetuari edo eredu gaitasunari buruz. Horiek guztiak Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko ordezkari eta kargu publikoen Gobernu Onerako Kode Etikoa artikulatzen duten oinarriko printzipioak dira.

5. Egun berean, martxoaren 22an,k sinatutako idazkia erregistratu zen Batzardearen Idazkaritzan.

Aldi baterako lan poltsak osatzen dituztenen zerrenda bat lagatzeko prozedura ulertzeko, garrantzitsutzat jotzen du foru sektore publikoa osatzen duten erakunde eta organismoen egiturari buruzko alde zuzeneko zehaztapen bat egitea. Horregatik, bere idazkiaren hasieran argitzen du foru sektore publikoa Arabako Foru Aldundiak, hiru erakunde autonomok (horien artean ASEA dago), sei sozietate publikok, lau fundaziok eta partzuergo batek osatzen dutela, eta guztiak dutela entitate juridiko propioa eta bereizia, baita gobernu organoa, plantilla eta langileak hautatzeko prozesuak eta lan poltsak ere.

Gogorarazten du erakunde publikoen artean aldi baterako lan poltsak lagatzea arrunta eta ohikoa dela eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Lege berriaren 77.4 artikuluan berariaz jasota dagoela, eta adierazten du Arabako Foru Aldundiak, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren bidez, aldi baterako lan poltsak osatzen dituzten pertsonen



zerrendak ematen dizkiela foru erakunde autonomoei, udalei, kuadrillei eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batzuei. Zerrenda horiek funtzionarioek bakarrik egiten eta bidaltzen dituzte, ez dute izendapen politikoko karguek parte hartzen.

Adierazi du 2018ko uztailaren 2an,k Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaritzari ekonomialarien aldi baterako lan poltsaren zerrenda bat eskatu ziola programako bitarteko funtzionario bat izendatzeko eta, egun horretan bertan, zuzendaritza unitate horrek lan poltsa horretako lehen hogeit hamar pertsonen zerrenda bidali zuela, puntuazio ordenaren arabera deitzeko modukoak zirenak, "libre" egoeran egoteagatik.

Horri dagokionez, argitu du bidalketa Arabako Foru Aldundiaren lan poltsak arautzen dituen 175/2015 Foru Aginduaren seigarren artikuluko 1. apartatuan jasotako hautaketa prozedurarekin bat etorri egin zela; izan ere, artikuluko horrek xedatzen du "libre" egoeran daudenei deituko zaie, (...) lehen hurrenkerari jarraituz" Zehaztu duenez, horren ondorioz zerrendatik kanpo utzi ziren hasieran lan poltsan zeuden baina une horretan Arabako Foru Aldundian "lanean" ari ziren pertsonak. Bazterketa hori beti egiten dute Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta beste euskal administrazio publiko batzuek lan poltsak lagatzean..

.....ra bidalitako hogeit hamar pertsonen zerrendan, mesede tratua jasotzea leporatzen zaion pertsona laugarren postuan zegoen, beste hiru pertsonaren atzetik. Guztiak aurkeztu ziren Aldundiak 2016an deitutako ekonomialarien enplegu publikoaren eskaintzara. Zehaztu du zerrenda horrekin amaitu zelaren esku hartzea.

Azkenik, adierazi duk erabat errespetatu dituela berdintasun, publizitate, gaitasun eta merezimendu printzipioak, administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioaren arabera, eta gogorarazi du lan poltsen zerrenden lagapenetan funtzionarioek soilik esku hartzen dutela, eta berak ezin duela esku hartu, ez zuzenean, ez zeharka.

6. Egun bat geroago, martxoaren 23an,k idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horretan,ren argudioekin bat etorri, zehazten du ezen, administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioari jarraituz, 2022ko uztailetik Aldundiko lan poltsetan "libre" egoeran zeuden langileen zerrendak bidali zaizkiela hamabi erakunde publikori, eta, era berean, data horretatik zuzendaritza horrek hogeita bi aldiz eskatu dituela beste administrazio batzuetako zerrendak.

Bestalde, zehaztu du "libre" egoeran dauden pertsonen zerrendak lagatzeko prozedurak instrumentalak baino ez direnez, zerrenda horiek igortzeko ez dela administrazio xedapenik behar.

7. Martxoaren 24an,ren mezu bat sartu zen Batzordearen posta elektronikoen postontzian. Mezu horretan, zehatz-mehatz azaltzen da 2018an teknikari ekonomialari bat aldi baterako kontratatzeko jarraitutako prozesua.



Lehenik eta behin, adierazi duk bete zituela 2018ko ekainera arte ekonomialari teknikariaren eginkizunak, ekonomialaria zelako, baina, plaza hori hutsik geratu zenean, ekonomialaria kontratatze beharra eta premia sortu zela, eta 2018ko uztailaren 2an Aldundiari eskatu zitzaioela ekonomialarien aldi baterako kontratazio zerrenda bidaltzeko, kategoria horretako lanpostu bat bitarteko gisa betetzeko.

Azaldu duenez, eskaeraren egun berean, Aldundiak bere ekonomialarien poltsan "libre" egoeran zeudenen izenen zerrenda bidali zien, baina zerrenda horretan ez zen agertzen epaitegietann kontratatze eskubide hobea argudiatu zuen pertsona. Bidalitako zerrendan agertzen ziren lehen hiru pertsonari deitu ondoren, laugarren postuan agertzen zen pertsonak bete zuen lanpostua.

Ondoren, zehatz aztertzen du 2018ko uztailetik teknikari ekonomialariaren lanpostuaren aldi baterako kontratazioa, eta argitzen du, lanpostua, lehenik eta behin, programa kontratu baten bidez bete zela, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ezarritako gehieneko iraupen muga errespetatuz; ondoren, 2020an, programa finkatzearen bidez lanpostua sortu zen etaren Lan Poltsak Kudeatzeko Erregelamenduaren 24. artikuluan aurreikusitako kontratazioa jo zen, zeinak aurreikusten baitu lanpostu sortu berri bat kontsolidatutako programako lanpostua betetzen zuen pertsonaren bidez beteko dela.

Azkenik, azaldu duk Aldundiak bidalitako "libre" egoeran zeudenen zerrendako lehentasun ordena errespetatuz egin zituela deiak, eta ez zekiela deitzeko lehentasun eskubidea zuten pertsonak egon zitezkeela.

II. APLIKATZEKOAK DIREN ARAUAK

1. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez, zeina legegintzaldi honetan 654/2019 Erabakiaren bidez berretsi baitzen, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien Gobernu Onerako Kode Etikoari (aurrerantzean, GOKE), foru sektore publikoan printzipio etikoen sendotzea babestu eta gidatzeko.

Kode horrek printzipio orokor batzuk jasotzen ditu kargu publikoen jokabideari buruz. Printzipio horiek zintotasunaren eta gardentasunaren inguruan egituratzen dira, eta hiru eremutan proiektatzen dira: kalitate instituzionala, herritarrekiko harremana eta etika eta jokabide indibiduala. Printzipio horiek, era berean, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren III. kapituluan jasota daude.



2. Foru Arau horren 19.3 artikulua Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea izatea aurreikusten du, kode hori betetzen dela zaintzeko.

Horiek horrela, GOKEren zazpigarren apartatuan Etika Publikoaren Batzordea sortu zen, organo independente gisa, kode horretan araututako jokabide arau, printzipio eta balioak bultzatu, sustatu, haiez arduratu eta beteko direla bermatzeko, bai eta erakundearen irudia kaltetu lezakeen arau hauste edo okerreko jokabide orori aurrea hartzeko ere.

3. Etika Publikoaren Batzorde horren eginkizunak foru gobernuko kideengan, goi kargudunengan eta Arabako Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen zerbitzura dauden gainerako zuzendariengan proiektatuko dira, bai eta Gobernu Kontseiluak edo haren organo eskudunek —foru sozietate publikoen kasuan— izaera eta kapitalaren zatirik handiena pribatua duten erakundeetan edo haren kontrola hainbat administrazio publikori edo haien sektore publikoei dagokien beste edozein erakundetan zuzendaritza edo administrazio karguak betetzeko izendatutako pertsonengan ere, baldin eta egungo GOKEri atxikita badaude, bai automatikoki hautatzen edo izendatzen diren unetik, bai kodea onetsi aurretik izendatutako kargudunen kasuan kontrakorik adierazi ez dutelako.

Horregatik, egindako kontsultan GOKE aplikagarria da.

III. ETIKA PUBLIKOAREN BATZORDEARI IRITZIA EMATEKO AURKEZTU ZAION GAIA

1. Diputatu nagusiak kontsulta bat egin du funtzio publikoaren jarduna Gobernu Onerako Kode Etikoa ezarritako jokabide arau eta balioekin bat datorren ala ez zehazteko.
2. Abiapuntu gisa, esan behar da foru sektore publikoko kargu publiko bat eskuratzeak ez dizkiela kentzen kargu hori betetzen duten pertsoneri, ezta ingurukoei ere, ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideak eta askatasunak, herritar izaera duten aldetik.

Aztertzen ari garen kasuan, printzipio horrek esan nahi du foru kargu publiko izendatzeak ez diela haien senideei oinarrizko eskubideak baliatzeko aukera kentzen, eta eskubide horien artean dago funtzio publikoan berdintasun baldintzetan sartzea.

3. Ekonomialarien lan poltsako kideen zerrenda lagatzeari dagokionez, onartu berri den Euskal Enplegu Publikoaren Legean aurreikusia, administrazio publikoen arteko lankidetzaren printzipioari jarraituz, Arabako Foru Aldundiak, beste batzuetan bezala,ri bere lan poltsatik "libre" egoeran zeuden pertsonen zerrenda bat baino ez zion eman, eskaera egin zuen egunean. Jarduteko modu hori, logikoa izateaz gain -beste erakunde publiko bati une horretan lanean ari diren pertsonen datuak ematea zentzurik ez lukeelako-, bat dator Arabako



Aldundiaren lan poltsen legezketasunarekin eta indarreko araudiarekin, zeina bere burua antolatzeko ahalmenaren barruan onartu baitzen.

Bestalde,n izapidetutako teknikari ekonomialaria kontratatzeko espedientetik ondorioztatzen denez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan xedatutakoaren arabera egin ziren kontratuak. Espediente horretan Aldundiko Kontuhartzailtza Zerbitzuak emandako aldeko txostenak jasotzen dira.

Nolanahi ere, kargu publikodun baten ahaide bat Arabako Foru Aldundiko lan poltsa batean egoteak ezin du inola ere eragotzi zerrenda beste erakunde publiko batzuei lagatzea, ezta, hala badagokio, hura izendatzea ere, baldin eta horretarako eskatzen diren baldintzak betetzen baditu.

Gainera, ezin dugu alde batera utzi "libre" egoeran zeuden ekonomialarien zerrenda lagatzeko prozeduran eta teknikari ekonomialariaren kontratazioan ez dagoela kargu publikodunaren esku hartzerik, bere garaianko zuzendari gerentziak bere langileek egindako izendapen proposamenak eta horiek babesten dituzten nahitaezko txostenak sinatu izanaz gain.

4. Kargu publikodunen Gobernu Onerako Kode Etikoan jasotako balioei dagokienez, kasu honetan foru kargu publikoen jokabidearen zintzotasuna aztertu behar da. Kodearen hirugarren apartatuak adierazten duen bezala, kodearen ondorioetarako hau da zintzotasuna: foru kargu publikodunek beti jokatzeko prestutasunarekin, inpartzialtasunarekin eta objektibotasunarekin, esparru juridikoari eta herritar guztiei begirunea dietela, inoiz ere huts egin gabe.

Horrek esan nahi du kasu honetan esku hartzen duten sail eta administrazio unitateetako foru kargu publikoen jarduteko moduaren erantzukizunaren, inpartzialtasunaren, objektibotasunaren eta ereduagarrtasunaren printzipioekiko errespetua baloratu behar dela.

Seigarren apartatuko 3. puntuko k) letrak adierazten duen bezala, foru kargu publikodunek beren erabakien eta egintzen erantzule izan behar dute, beren karguari dagozkion kontrolak onartu behar dituzte eta beren gain hartu beharko dituzte haien jardunak zein jardun ezak dakartzan ondorioak, erantzukizuna beren mendekoei kausa objektiborik gabe bideratu gabe. Halaber, agintaritza eta erakunde eskudunei jakinarazi behar diete ezagutzen dituzten irregulartasun guztiak, eta horrelakoetan haiekin lankidetzan aritu behar dira.

Bestalde, Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 18.2 d) artikulua, foru kargu publikoek bete beharreko jokabide printzipioak finkatzean, hau ezartzen du: "inpartzialtasunaren, zintzotasunaren eta objektibotasunaren printzipioak errespetatzea, irizpide lokabeari eutsiz eta norberaren interesak alde batera utziz; alderdi politiko baten organo exekutibo edo zuzendaritza organo bateko kidea izateak ezin du eraginik izan jardunean, ez eta ezarritako egitekoak gauzatzeko lanak eragotzi ez moteldu ere".



Eskakizun horrekin hertsiki lotuta, aipatutako artikulua 1. apartatuko c) letrak honako hau ezartzen du: "Inpartzialtasunarekin jokatzeko, alde batera utzita printzipio honekin bat ez datozen interes pertsonal, familiar, korporatibo, klientelar eta bestelako guztiak".

Aurrekoarekin lotuta, arau horren 21. artikulua dio foru kargu publikodunek ez dutela parte hartuko interes pertsonalak dituzten edo haien alde egiten duten jardura, erabaki edo ekimenetan.

Hala ere, Batzarde honek uste du, foru kargu publikodunen zintzotasun irudia zaintze aldera zuzentzea horiek betetzeak duen garrantzia gogorarazteaz gain, ez dela garrantzirik gabekoa honako hau: Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaritzan etan izapidetutako espedienteetan jasota dagoen bezala – Batzarde honek espediente horiek eskuratu ditu –, kargu publikodun bakar batek ere ez du parte hartu Aldundiaren etaren arteko lan poltsak lagatzeko prozeduran, ez etako ekonomialariaren kontratua aldi baterako betetzeko prestaketan, deietan eta izendapen proposamenean ere. Jarduketa horiek guztiak bi foru erakundeetako funtzionarioek eta lan kontratudun langileek soilik egin dituzte.

5. Kargu publiko batez baliatzeak, kargu horren edo beste baten senideari sektore publikoan kontratazioa lortzea ahalbidetuko dioten erabakiak hartzera behartzeko, inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun eta desinteres subjektiboaren printzipioak urratzen ditu – edo, gutxienez, urra ditzake, kasuan kasuko inguruabarren arabera –, bai eta pertsona bakoitzak bere instituzio eta erakundeetan bete behar duen zeregin edo funtzioari zor zaion errespetuaren printzipioa ere. Hala ere, kasu honetan, planteatutako kontsultatik bildutako datuek eta informazioek, bai eta foru kargu publikodunek emandako informazioak ere, aukera ematen dute zehatz-mehatz jakiteko zer baldintzatan laga zen ekonomialarien lan poltsaren zerrenda eta zer baldintzatan egin zen teknikari ekonomialariaren kontratazioa 2018ko uztailan, eta ez dute biderik ematen ondorioztatze horrelako jokabide baten aurrean gaudela, baizik eta Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluan jasotako funtzio publikora iristeko eskubidearen erabilera legitimo eta zuzen baten aurrean gaudela.
6. Bestalde, bidezkoa da aipatzea erantzukizun publikoa duten pertsonen eskatzen zaien zintzotasuna lotuta dagoela kargu publikodunek gardentasunari dagokionez duten betebeharrarekin, eta herritarrei beren erabakiei buruzko informazio fidagarria eta osoa emateko betebeharra dutela.

Egia esan, ekonomialarien lan poltsako zerrendaren lagapenean eta teknikari ekonomialaria kontratatzean esku hartu duten sailetako titularrek Batzar Nagusietako prokuradoreen esku jarri dute eskatu zaien informazioa, eta, era berean, dagozkien zuzendariekin batera, Arabako Batzar Nagusietako Batzardean agertu dira, gertakariei eta egindako jarduketei buruzko azalpen luzeak emanez.

Horregatik guztiagatik, Étika Publikoaren Batzardeak, aho batez, honako hau ebatzi du:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore
publikoko gobernukideen eta goi
kargudunen Ética Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros
del Gobierno y altos cargos del sector
público foral del Territorio Histórico de
Álava

EBAZPENA

Etika Publikoaren Batzorde honen ustez, ezk, ezko ekonomialarien lan poltsako zerrendaren lagapenean eta teknikari ekonomialaria kontratatzean esku hartzen dutentako etatako titularrek ez dituzte urratu GOKEn jasotako balio, printzipio eta portaerei buruzko aginduak, horren harira egindako jardueri dagokienez.

Sin.: Itziar Gonzalo de Zuazo
BATZORDEBURUA

Sin.: ELENA FERREIRA SEBASTIÁN
BATZORDEKIDEA

Sin.: Javier Garaizar Candina
BATZORDEKIDEA

Sin.: Fernando Salazar Rodríguez de
Mendarozqueta
BATZORDEKIDEA

Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a